

336. zenbakia 2008ko otsailak 22



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Aitor Sarriegi

Hauteskunde orokorrak

Hauteskundeei eman orduko lehenengo begiratu sentitzen dugu biguina eta lepoko zaintiratu. Irabazleen aukera murriz, hori da hori, datua! Zer axola du eskuindar bat den hitzetan erdiratu edo ezkerreko txotxongilo bat konplexuek gidatu?

Legez kanpora beste bi indar lehendik utzitakoez gain demokrazia maite dutenek zer esaten dute orain? Baina kongresu ala senatu Madril da ta ez Beasain zertan hainbeste olio eman, zertan maite, zertan irain? alfer alferrik egongo gara handik datorrenaren zain.

Doinua: Zure eskaerak egia esan

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Jon Ordoñez.

5. Ingurugiro txokoa: Goierriko belardiak (II).

6. Euskara txukuntzen: Super, mega ta hiper lagunekin batera!

8. Erreportajea: Pentsu ekologikoa Goierriko Kanpo Kooperatiban.

12. Erreportajea: Hainbat goierritar epaiketa politikoen atarian.

18. Elkarrizketa: Bittor Gorria apaiza, Jerusalem.

20. Gazteleku: Urtzi eta Maite Murgia eskiatzaile txirrindulariak.

24. Non zer.

25. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Jon Ordoñez

Osteguna zen, orain bost urte

Amak esnatu nau. Egunak ez du oraindik argitu. Loak hartuta nago horregatik, eta bigarren aldiz esan behar izan dit amak: jendea atxilotzen ari dira eta egunkarian sartu dira guardia zibilak. Ez dakit zer ordu izango den, baina lanera sartu orduko aitak entzun duela albistea irratian, eta neronek ere horixe egin dut, piztu. Hotzak hartu du loaren tokia orain. Atera dute jendea etxetik, eta eraman egin dute. Irratian izenak besterik ez dira, bata bestearen atzetik esanda, baino esan ahala izenak, aurpegiak, ahotsak eta keinuak datorzkit gogora, badituzte eta. Osteguna da, eta hotz egiten du.

Telefonoa hartu eta langile batzordeko beste kideei deitzen hasi naiz. Ama ni naiz orain, eta behin baino gehiagotan errepi-katu behar dut gertatzen ari dena. Eiderrek ezin du sinetsi, baina jakin badaki egia izan behar duela, goizaldean telefonoz lankide batek ez duela horrelako bromarik egiten inor esnatzeko. Ez dakigu zer egin, eta Andoaingo erredakziora hurbiltzekotan geratzen gara. Kasualidadea, aitaren R18 zaharra tailerrean dago eta eros-tekotan naizen auto berria jaso gabe oraindik.

Trenari itxaron ezin eta Zumarragako lankide bati deitu diot. “Hi Gorka, enteratu haiz?”. Anbulatorioan jasoko nau. Jantzi, eta etxean lotan geratu direnak esnatu gabe atera naiz kalera. Zain egon behar dudala jakinda ere ziztu bizian egin dut. Zutik hotza, pretilean eseri eta hotz gehiago. Halako batean, semarofo parean geratu eta Quevedoren autora igo naiz. Ez dakit zertan ari garen, irratia entzuten edo gure artean hitz egiten. Bi gauzak batera.

Aparkatu dugu industria guneei batean, eta oinez egin ditugu azken metroak. Jendea ikusi dugu lehenik kalean, aterki txikiak, txamarra lodiak, neguko txanoak, mendiko botak, eta azkenik aurpegi ezagunak. Lankideak dira.

Martin Ugalde Kultur Parke osoa hartu dute guardia zibilek. Aurrean, atzean, goian eta barruan daude. Atxilotutako zenbait lankide erredakzioan daude, baina nor ez dakigu. Nork eraman dituen bai. Euria ari du, eta zer gertatuko den ez dakigu. Oraindik ez dute egunkaria ixteko agindua eman, baina ezer onik ez dugu espero. Neguko goiz trakets bat da. Aurpegi zurrinak ikusten dira, zuriak, bustiak, ebakiak. Hatzak mugitzea ere kosta egiten da. Errepidea mozten duen guardia zibil horrek zer pentsatzen ote du?

Martxelo atera omen dute erredakziora, eta patrol batean sartu. Entzun gaitzan saiatu gara, baina sirena hotsak ozenak dira. Gure parean dagoen guardia zibila patroleko atea zabalik joan da, zutik, sirena hotsak isildutako txistu artean. Atera gerturatu eta zigilatu egin dutela ikusi dugu. Kristalaren beste aldean ikusten da telefonistaren mahaia. Gogoan dut oraindik aurreko egunean trenera korrika joan eta “bihar arte” esan nionekoa. Igor Jauregi Realeko jokalariekin egindako zita gogoratu dut orduan. Goizeko hamabietan Zubietan.

Pasatu dira bost urte, eta Lorea Agirrek idatzitako liburuak dioen bezala, oraindik ere gezurra ari du. Euskaldunon Egunkariaren itxieraren bosgarren urteurrenaren bueltan epaiketa dator. Bost urte: inkomunikazio aldia, torturak, salaketa, Donostiako manifestazioa, elkartasuna, Auzitegi Nazionalera joan-etorria, kartzelaldia, Egunero egunkaria, Egunkariaren aldeko batzarrak herrietan, dirua biltzeko ekitaldiak, akzio salmenta eta euskarazko beste egunkari bat kioskoetan. Baina Euskaldunon Egunkaria betiko itxi zuten, eta otsailaren 20ko ostegun goiz hartatik gaude zain, bidegabekeria hori nola borobilduko duten zain, beraien galderen zain, beraiek gure galderak atzean utzi dituztela jakinik.

Pasatu dira bost urte, eta Lorea Agirrek idatzitako liburuak dioen bezala, oraindik ere gezurra ari du.



kutxa

Belardietara gerturatuz (II)

Naturalki, Gipuzkoako lareak mantendu ezean basotu egingo lirатеke, zurezko landareei pasoa emanez, zuhaitzei alegia. Gurean, hariztiak kasu gehienetan. Hasera batean belardi hauen sorrera, hauste edo aldaketa naturalen ondorioz ematen zen, ala nola sua, elur jauzi eta haizeteak utzitako baso une argitueta. Animalia belar jaleak bertan larreratzek, basoko landare hazien garapena ekidinez mantentzen zen sistema. Gizona, abeltzain bilakatzean, hutsune hauek bazka leku gisa erabiltzen hasi zen.

Milaka urteetako erabilerak horrek lexiko aberats bat utzi digu, bakoitza bere ñabardurekin: belardi, belaze, larre, larredi, zelai, belartza, bazkaleku, alhagunak... izen asko gauza berdintsuak adierazteko, ohizkoen, belardi hitza erabiliz.

Egun, Gipuzkoan, belardiak 48.931 ha. suposatzen dute, lurralde osoaren %42,5eko azalera beteaz. Goierri eskualdean 17.727 ha. Gehiengoa 600m. azpitiko garaieretan eta jabetza partikularretan, baserri lurrei atxikiak izaten dira.

Dena dela, belardia kontzeptu bezala ez da belarrez osatutako lur eremu batera mugatzen, haratago doa. Larrebelardiak beste izaki askoren bizileku dira, eta hauek ere belardia osatzen dute, zuhaitz eta



zuhaixkak, onddoak, intsektuak, hegaztiak, ugaztunak, narrastiak, anfibioak... Hauen presentzia eta elkarren arteko erlazioak emango du belardi horren kontserbazio eta kalitatea-ren isla.

Adibide gisa, fauna aipatzearen, ohikoenak lur zizare, barraskilo, armiarma, marigorrigo, matxin-salto, kilker, erlastar, inurri, tximeleta, beldarra, kotxorro, igela, sugea, sugandila, musker berdea, satorra, lur sagua, uzta sagua, trikua, erbinudea, azkonarra, azeria, txolarrea, berdantza, enara, zozo, birigarro, zape-

latz, belatz txiki, bele, eta beste horrenbestek, bertan dute bizileku, janleku, ehiza toki, eta abar, bai belar artean, bai belar gainean, eta bai lur azpian.

Gizakiak ere belardietan izaten du bere elikadura iturri. Esate baterako, udaberriko ziza, txanpiñoi eta azpibeltzak bilduz, lehen aldiz soroak ereinez, untxi, erbi eta zenbait hegaztiren ehiza eginez... jarduera asko bertan ematen dute.

Baseritarrentzat interes nagusia, belar ekoizpe-nean dago, abereak larratuz eta belar uzta jasoaz, eguzkiari esker belarrak jasotako energia, abereek bereganatzean eta ondorioz, hauen esne edota haragi eskaintza aprobetxatzean, alegia.

Manex Aranburu (Goierriko belardiei buruz argitaratze ar dagoen materialetik jasota)

JAKIN BEHARREKOAK

2008 nazioarteko Patataren urtea izendatu du FAOk, tuberkulu honek gizakiarentzat duen garrantziagatik. Patataren inguruan egingo den ekin-tzatariko bat Perun Patataren Parkea sortzea izango da. Erakunde honen helburua patata espeziearen 4.000 barietate biltzea eta bertako komunitateei patata mota ezberdinekiko dituzten eskubideak onartzea izango da.

Suminik ez duen sator-arratoia. Chicagoko Thomas Park eta Alemaniako Gary Lewin ikertzaileek Afrikako sator-arratoi biluziaren (Heterocephalus glaber) beste berezitasun bat aurkitu dute: ez ditu min-mota guztiak sentitzen.

Antropozenoa, gizakia-ren garaia. Geologo-talde batek proposatu du garai geologiko berri bat definitzea: azken 200 urteetako denbora-tarteari Antropozeno deitu nahi diote.

LIBURUA

Zer da Nekazaritza Ekologikoa? Liburua argitaratu dute Ekonekazaritzak eta Eusko Jaularitzak. Haurrei zuzenduta dago, nekazaritza ekologikoa azalduz. Bestalde Euskal Herriko arrazei garrantzi berezia eman diote. Liburu honen bidez umeak nekazaritza ekologikoaren ezaugarriak eta produktuak ezagutzen irakatsi nahi zaie. Liburua euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dago eta 2008 urtean banatuko da ikastetxe eta liburutegi publikoetan.

Larreak mantendu ezean basotu egingo lirатеke, zurezko landareei pasoa emanez.

Super, mega eta hiper

Maizpide
euskaltegia

Ez haserretu, irakurle, ez gara adarra jotzen ari eta! Kontua da kalean gero eta indar handiagoa dutela izenburuan aipaturikoek... eta gure euskara egunetik egunera pobretzen ari ez ote den susmoa dugula. Badakigu gaztelania-ekin gauza bera ari dela gertatzen, baina hori ez da mo-

tibo aurrean dugun "arazotxoari" konponbiderik ez emateko!

Erreparatu ondorengo bi zutabeei: bata, ezkerrekoa, aski ezaguna da gaztetxoan artean; bigarrena, eskuinekoa, askoz jatorragoa iruditzen zaigu...

Euskara "pizzeroa"	Euskara herrikoia
✗ Bernardo Atxagaren azken eleberria superluzea da	✓ Bernardo Atxagaren azken eleberria garizuma baino luzeagoa da
✗ Charles Chaplinen pelikula hori superzabarra da	✓ Charles Chaplinen pelikula hori baize begoa baino zabarragoa da / ez da atzo (edo gaur) goizekoa
✗ Mendian superrondo pasatu dugu	✓ Mendian primeran pasatu dugu
✗ Josunereren tartak superronak dira	✓ Josunereren tartak mundialak / oso goxoak dira
✗ Suitzako gizon hori superraberatsa da	✓ Suitzako gizon horrek Rotxillek (edo Bill Gates-ek) baino diru gehiago du
✗ Zure senarra superrondo bizi da	✓ Zure senarra erregearen pare / primeran bizi da
✗ Maritxu superpolita / superdotore etorri zen jaialdira	✓ Maritxu oso dotore / bentizinko baino dotoreago* etorri zen jaialdira
✗ Azterketa superrondo egin nuen	✓ Azterketa ezin hobeto / primeran / bikain egin nuen
✗ Estitxu Fernandez supersexy zegok argazki horretan	✓ Estitxu Fernandez jateko modukoa zegok argazki horretan
✗ Nire mutilaren BMWan superrazkar iristen gara leku guztietara	✓ Nire mutilaren BMWan tximista baino azkarrago / aitararen batean iristen gara leku guztietara
✗ "Da tipo bat superjatorra , tia!"	✓ Oso mutil jatorra dun! Ezin jatorragoa dun!

Hi, ni ez naun/k toreatzailea, e!
Ni SUPERMAN naun/k! Indartsu
baino indartsuagoa, tximista baino
azkarragoa, bentizinko baino
dotoreago janzen dena...
eta jateko moduko gizona!



Superman... goierritarren irakasle berria!

* Izango da horrelako esamolde zabarrak erabiltzeari ondo iritziko ez dionik. Tira, adibide horretarako "bain gazte ez direnek" zer darabilten erakutsi nahi genuen. Beraz, ez erretxindu!

Zuzendu, behar izanez gero...

- Jo, tio, zea superguay!
- Jo, maja, jarri digute azterketa bat... superzaila!
- Hipernekatuta nago, Nagore!
- Ama, gaur supertxintxo portatu naiz, ezta?
- Superman heroia Louise Lane izeneko kazetariarekin maitemindu omen zen.
- Gure baserriko hozkailua Super Ser etxekoa zen.
- Superrastearteak ez zuen Barack Obamaren eta Hillary Clintonen arteko oreka hautsi.

OHARRA: lehenengoa "Dedio, mundiala baiz" (edo borrelako zerbat) proposatzen dugu; bigarrena, "Neska, oso azterketa zaila jarri digute"; hirugarrenengoa, "portu eginda / leber eginda"; laugarrenengoa, "txintxo baino txintxoago"; bosgarrena eta seigarrena zuzenak dira (kar-kar); zazpigarrenengoa, "as-tearte bantak".

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteazkenean zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko
meua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEBI



Sagardotegia

LARUNBATA 12

GAUEAN TXOTX

DENBORALDIA

IREKIKO DUGU

TRIKITILARIEKIN

SARRERA DOAN

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA


Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Pentsu ekologikoa


*Goierriko Kanpo
Kooperatibaren
eskaintza*



Badira hiru urte, Goierri Kanpo

Kooperatiban pentsu ekologikoa merkaturatzen hasi zirela, Gipuzkoako baserritar talde baten eskariz.

Kontsumitzaileak gustura daude, Altzoko Fermin Murua eta Ataungo Pili Eskisabel adibidez. Kanpo Kooperatibakoak ere gustura daude. Guztien artean, bultzadatxo bat eman nahi diete kalitatezko pentsuari.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**



Salmenta

Konponketa

Alokairua

Harilketa



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11

San Isidroren begiradapean, Goierri Kanpo Kooperatiban elkartu ditugu hiru urteotako esperientziaz hitz egiteko: Lurgintzako Judit Garcia; Goierriko Kanpo kooperatibako lehendakaria Eusebio Garmendia eta Pako Furundarena, bertako langilea; eta Fermin Murua Altzoko baserritarra.

2004ko azaroa zen. Gipuzkoan, pentsu ekologikoa kontsumituko zuen baserritar talde bat zela ikusirik, EHNE, Biolur eta Goierri Kanpo Kooperatibaren elkarlanaren ondorioz, Goierri Kanpo Kooperatiba aukeratu zen salmenta leku. Beharrezko inbertsioak egin eta pentsu ekologikoa saltzen hasi ziren.

Esne-behientzako, ardi-dientzako eta libreaan dabil-tzan oiloentzako pentsua ekoizten da. Lau ale ezberdin saltzen hasi ziren hasieran: artoa, garagarra, oloa eta ilarra edo baba. Gaur egun, bosgarren bat ere badago aukeran: garia. Silo ezberdinetan dute ale bakoitza, eta kontsumitzaile bakoitzak duten beharren arabera, nahasketak prestatzen ditu Pako Furundarenak. "Kartara saltzen dugu pentsu ekologikoa". 3 urteotan, esperientziak erakutsita eta bezeroen iritzia entzunda, hautsa kentzeko eta txikitzeko makinak jarri dituzte.

Hasierako helburua, urtean, 180.000 kilo pentsu



Judit Garcia, Fermin Murua, Eusebio Garmendia eta Pako Furundarena.

ekologiko saltzea zen. Lehenengo urtean, 200.000 kilo saldu ziren, aurreikuspenak betez. Bigarren urterako, jaitsiera txiki bat ikusi zen, batez ere makinekin izan dituzten arazoak eraginda. "Makinekin arazoak izan ditugu eta horrek geldialdi luze samarra ekarri du. Baina orain berriz, indartsu hasi gara".

Garestia, baina ona

Arto, garagar, olo, ilar eta gari ekologikoa bilatzen nahikoa lan izaten du Pako Furundarenak. Artoa ekartzen du urrutienetik, Frantzia ipar aldetik. Gainerako zerealak eta proteinak, Arabatik ekartzen ditu. "Oso jenero ona etortzen da", dio Furundarenak. Dena den,

"jenero ona bilatzea zail da, produktore gutxi baitaude. Paper asko behar dira, laguntza gutxi dago eta jendea nazkatzen ari da. Exijentzia handiak dituzte. Ekologikoan produktore gutxi dago eta aukeratzeko aukerarik ez dagoenez, prezioan ere ezin da konpetitu. Hori bai, bezeroak gustura daude pentsuaren kalitatearekin, baina arazoa, dirua da, oso garesti dago", gaineratu du Furundarenak.

Pentsuak, zerealak, orokorrean, 2007an asko garestitu bazen ere, ekologikoa

Artoa, garagarra, oloa, ilarra edo baba eta garia eskaintzen ditu kooperatibak.




ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurrita.



**JANTZI ZURE ETXEA
EGURREZ**

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
 Cuatrovientos Industrialdea, 1
 Txarama Auzoa 20491 **LEABURU**



Ardiak pentsu ekologikoa jaten.

oraindik ere gehiago. Lurgintzako Judit Garciak emandako datuen arabera, “ardi eta behien pentsua, %36 eta %42 garestiago dago”. “Espekulazioa ere iritsi

da pentsuetara”, azpimarratu dute. “Pentsu konbentzionala, ere oso garestia dago, gasoila gero eta garestiagoa, abonoa ere bai... Ia %50ean igo da abonoa.

Biodieselaren kontuagatik, merkatua aldrebestuta dago”.

Partikularrei deia

Baserritarrez gain, partikularrak ere hornitu nahi ditu Goierri Kanpo Kooperatibak. “Baserri asko daude ganadua, etxerako hazten dituztenak, oiloak dituztenak... horientzako oso gauza interesgarria da. Kalitatea bermatuta daukan pentsu bakarra da ekologikoa delako”, adierazi du laukoteak aho batez. “Gaur egun, kutsadura eta osasuna oso gai garrantzitsuak dira eta produktu ekologikoek hori bermatzen dute”, gaineratu dute. “Kontsumitzen dutenak oso pozik daude. Kexa bat, garestia dela. Administrazioari produktu ekologikoak bultzatzeko eskatu, gizartea sentsibilizatzeko”.

Sensibilazazio lana

Ildo horretatik, “Administratziotik apustu bat egin behar harko litzateke, ekologikoaren sektorea indartzeko, jendea ezagutzera emate-

ko eta jendea sentsibilizatzeko. Lan hori ez da egiten”, diote Goierri Kanpo Kooperatibak bildutakoek.

Dena den, azken batean ekoizpen ekologikoaren oinarria, pentsu ekologikoa baino gehiago dela nabarmendu nahi izan dute, “manejua bera... Pentsua osagarri bat da”, zehaztu dute.

Europar hobeto


Europako herrialdeetara begiratzuz, ekoizpen ekologikoa gero eta gehiago kontsumitzen dela azpimarratu dute. “Sentsibilitate gehiago dago eta jendeak baloratu egiten du. Gorpil bat da, erosle gehiago baldin bada, dena errazten da”.

Gehiago ere zehaztu nahi izan dute: “Europako politika bideratuta dago, batez ere landa-ingurumen laguntzak emateko. Ekoizpen ekologikoa horren barruan dago. Europatik bide bat bultzatzen ari dira, baina hemen, praktikan ez da bultzatzen, lehenengo eskemekin jarraitzen dute”, gaineratu dute.

Fermin Murua: behi-esne ekologikoa

Altzoko Fermin Murua esne-behiak ditu baserrian eta bere ustez, merezi dutpentsuagatik gehixeago ordaintzea. “Gehixeago baino gehiago, %40a gehiago da baina. Landa-ingurumen laguntzak daude eta ekoizpen ekologikoa egiteagatik, plus bat badago”.

Duela bost urte hasi zen altzotarra ekoizpen ekologikoarekin, eta orduetik, ganadua, osasuntsuago, lasaiago ikusten du. “Gutxiago produzitzen du baina ganadua hobeto dago, lasaiago, osasuntsuago. Animalien biziraupena handiagoa da ekologikoan”.



Hori bai, saltzeko garaian, jendeak ez ditu baloratzen produktu ekologikoak, “eta ezin da askoz ere garestiago jarri. Produktu ekologikoen aldeko sensibilizazio lan hori egiteko dago. Edozeinen eskutan egon behar harko luke, baina prezio guztiak hartu behar dira kontuan”, azpimarratu du altzotarrak.

Ildo horretatik, bitartekarien lana ere salatu du Fermin Murua. “Bitartekariak prezioak gehiegi igotzen dituztela uste dut. Leku batzuetan, elitismo puntu bat badago”.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Pili Eskisabel: arkume eta barazki ekologikoekin

Ataungo Espilla baserriko Pili Eskisabelek, erizaintza lana utzi eta bere gurasoen bizimoduari jarraitzea erabaki du, baserriari. “Ospitalea baino nahiago dut baserria”, dio Pili Eskisabelek.

Ekoizpen ekologikotik bideratu du bere lana. Baratztea eta ardiak ditu. “Arkumeak ekoizten ditut nahiz eta egoera kaskarrean izan momentu honetan arkumea”, zehaztu du.

“Nire gurasoek behiak zituzten. Behiak handiegiak iruditzen zitzaizkidan niretzat eta ardiak aukeratu nituen. Ikulua, baserritik atera eta mendian egiten ari naiz artegia”, dio ataundarrak.

Zehatzago esateko, sasiardiak aukeratu zituen. “Nire lana baratza da eta aurkitu nuen ganadu bat, rustikoa, esne asko ematen ez duena, lan gutxikoa, umea erraz egingo duena, ama ona izango dena”. Gustura dago aukeraketarekin, nahiz eta lana beti izaten den.

“Lurrari lotutako ganaderitza” egiten du Pili Eskisabelek. “Hainbesteko lursaila, hainbesteko ganadu kopurua. Nire lurrei, gehieenez, 36 ardi dagozkio, eta momentu honetan 33 dauzkat. Niretzat nahikoa, gehiago heldu nahi baitiot baratzeari”.

Ekoizpen ekologikoaren arabera, ikulua ere neurri zehatzak izan behar ditu. “Ardiak lasai daude ikuluan eroso”. Hori bai, kanpora ateratzeko zain egoten dira.

Elikadurari dagokionean, larreko belarraz gain, negu partean, amei, alpapa, belar ondua eta pentsu ekologikoa ematen die. “Hasiera batean, belar hu-



*Pili Eskisabel
gurasoekin
Espilla
baserriko
atarian.
Bebeko
argazkian
ardiak jezten,
etxerako
gastaren bat
edo beste eta
mamia egiten
ditu
esnearekin.*

tsa ematen nion baina nire arkumea ez zuen inork nahi. Denbora gehiago behar zuen eta alpapa eta pentsu pixka batekin, esnea mugitzen zaie eta arkumea hilabete batean egiten da. Konbentzionaletan, denbora gutxiago. Jendea ez zaio jolas egiten duen arkumerik gustatzen. Nireak kanpoan ibiltzen dira eta ibiltzen direnean, gihartsuago jartzen dira... Kanpoan ibilitako oilaskoa estimatzen da, baina arkumea ez, ez dakit zergatik, behar bada hori bultzatu dutelako. Nik, tarteko zerbait aurkitu dut. Goierri Kanpo Kooperatibatik ekartzen dut pentsua. Biolurrek zehaztutako neurriak ematen dizkiet. Oso gustura nago”.

Ardiak eskuz jezten ditu, pikotxean jarrita. “Ez dute esne asko ematen baina gaztaren bat eta mami pixka bat egiten dut etxerako”, azpimarratu du.

Azpietarako, udazkenean, orbela erabiltzen du. “Orbela bukatzen denean, lastoa. Aurtan lasto ekologikoa Arabako herri txiki batean aurkitu dut. Eta arto-lastoa ere erabiltzen dut, txikituta”.



Zelaiak ongarritzearen ardura, ardiek beraiek dute.

Baratztea

Dena den, baratztea du gustukoena Pili Eskisabelek. “Produktu kimikorik ez dugu erabiltzen. Arautxo batzuk badaude: txandaketa, asoziazioak, landare batek besteari laguntzen baitio... nire gurasoek egin izan duten tankeran, arauren bat gehixeagorekin”.

Ataundarraren ustez, “ateratzen den produktua hobe da, bai gizakiaren osasunerako, bai lurraren osasunerako. Nik hori sinisten dut behintzat”.

Produktu ekologikoen gaian, jendea sensibilizatu ote dagoen galdetu diogu ataundarrari: “geroz eta gehiago esaten da, baina

oraindik ez. Jaurilaritzak Labelaren alde egin du apustu. Diruarekin, jendea, kalitatea, Labeleko produktuetan dagoela azaltzen ari dira. Kalitate goreneko bezala, Labela azaltzen dute. Labelak bermatzen du, bertako produktua dela, eta ez da gutxi. Ni bertako produktuen alde nago, baina ekologikoen alde. Nire ustez, ekologikoa atzera dator. Goierriko Baratzak jendea kontzientziatzen lagundu du eta aldi berean, jendeak badaki produktu ekologikoak non aurkitu”.

Salmenta zuzenaren aldekoa da ataundarra, batek etekin gehiago ateratze aldera, eta bestetik, erosle eta ekoizlearen arteko zuzeneko harremanak duen garrantziagatik.



Justizia itxaropenik gabe

*Hainbat goierritar
epaiketa
politikoen atarian*

Auzitegi nazionalen, 18/98 auziaren ildoari jarraituz, euskaldun asko epaituko dituzte datozen hilabeteotan. Amnistiaren aldeko mugimenduaren auziak, epaiketa eguna jarrita dauka, apirilak 21; Egunkaria, Udalbiltza, Batasuna eta Jarrai-Haika-Segi auzien epaiketak ere segidan etorriko direla uste da. Auziperatuta dauden artean, hainbat goierritar daude: Askatasunaren mugimenduaren auzian, Ainhoa Irastorza ordiziarra eta Juan Mari Olano gaintzarra; Egunkaria auzian, Txema Auzmendi ordiziarra; Udalbiltza auzian, Urko Irastorza lazkaotarra; Batasuna auzian Jon Gorrotxategi beasaindarra; eta Jarrai-Haika-Segi auzian, Garikoitz Mujika olaberritarra. Garzon epaileak berriki ireki duen EHAK-ANV auzian ere beste lau goierritar daude auziperatuta: Karmele Aierbe ataundarra; Egoitz Apaolaza zeraindarra; Asier Imaz idiazabaldarra eta Eusebio Lasa beasaindarra. Batzuk fidantzapean aske eta beste batzuk kartzelan, epaiketa politikoen zain daude, kartzela zigorraren mehatxupean.

GRÁFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

IÑAKI ARIN
aseguruak



943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Ainhoa Irastorza. Ordizia.

Amnistiaren Aldeko mugimendua

2001eko urriaren 31 gauean atxilotu zuten Ainhoa Irastorza. Hiru urte eta 8 hilabete egin zituen kartzelan. Fidantza ordainduta atera zen kalera. Amnistiaren Aldeko mugimenduaren auzi honetan, ordiarrarekin batera, 2007ko irailaz geroztik, Segoviako kartzelan dagoen Juan Mari Olano gaintzarra ere auziperatuta dago. Epaiketa hasteko eguna jarrita daukate: apirilaren 21etik uztailaren 23ra. 18/98 auzian bezala, astelehenetik asteazkenera, goiz eta arratsalde izango dira saioak, Casa de Campon.

Nola bizi izaten da horrelako egoera bat?

Urduri. Maila pertsonalean bakoitzak bere motxila dauka. Niri gogorra egiten zait, badakidanez kartzelan egotea zer den, berriz ere itzuli beharra. Politikoki badakigu zer dagoen: hau da dagoena, eta gehiago ere etorriko dira.

10 urte eskatzen dizkigute. 18/98 auzikoekin egin dutena ikusita, gehiago igual. Haiei, gehiago erori zaizkie azkenean. Auskalo. Hauteskundeon ondoren, horrekin jokatu dute.

Egin beharrekoa eginda dago. Egingo ditugun deklarazioek-eta ez dute ezertarako balioko. Abokatuek egin dezaketen defentsak ere ez du ezertarako balioko. Irizpide politikoak daude, eta beraiek beraiek nahi dutena egingo dute, guk esaten dugunaren gainetik. Azkenean, epaiketa politikoak dira eta atzean dagoena, beste interes batzuk dira.

Amnistaren aldeko mugimenduaren aurka eginda zer lortu nahi dute?

Amnistiaren aldeko mugimendua, oso mugimendu garrantzitsua da. Beste guztiak, eraikuntzan dabilzanak dira gehiago, baina gu gizarte eragile bat gara. Bere garaian eraiki zen presoaren aldeko sensibilizazio guztia murriztu, beldurra sartu... nahi dute. Beldurra sartzea orokorrean, honetan eta hartan lana egiten baduzu kartzelara joango zara esatea, eta presoekiko elkartasun guztia moztea.

Esaldi bat badago esaten duena, bere presoak ahazten dituen herriak ez duela etorkizunik. Herri hau borroka batean dago eta borroka horren islada nagusia presoak dira. Beraz, hori moztea, estrategikoki etsaiarentzat, inportantea da.

Egoera politiko honen irtenbidea non ikusten duzu?

Galdera potoloa da. Irtenbidea ez dakit, baina Euskal Herriak, gizarteak dagoeneko erakutsi du, erre-



presioarekin ezin izango dutela euskal gatazka bukatu. Ahuldu bai, eta ez gaude momenturik onenean, ondo egurtu gaituzte eta mina ematen digute. Baina gauza bat da mina ematea eta bestea bukatzea. Beraiek badakite errepresioarekin ez dutela bukatuko. Beste gauza bat da, gu ahalik eta gehien estutzea eta min handiena egitea, gerora begira, azpitik negoziatzeko. Momentu honetan, PNVk PSO-Erekin dituen interesak oso estuak dira. Ezker Atertzealea orduan eta ahulago egon eta orduan eta okerrago egon, PNVek orduan eta errazago izango du berak nahi duena egiteko. Udaletxeetan gertatzen dena azkenean, kritika politikorik ez baldin bada, dena libre da.

PNVk gure manifestazioetara ertzainak bidaltzen ditu, edozein kartel jartzen ari zarenean gainean daukazazu... Hitzak bai, hitzak erabiltzen dituzte jendea manipulatzeko baina ekintzetan gurekin ez dute ezer jakin nahi. Uste dut nahiko lotsagabe jokatzen ari direla. Haserre adierazi nahi nieke, ausardia izateko. Herriari benetan hitza eman nahi badiote, emateko eta ikusiko dugu herri honek zer nahi duen. Baina ez beraiek esaten duten hiru herrialdeei bakarrik, herri osoari eman hitza eta ikusiko dugu. Ez egiteko tranparik, ez egiteko iruzurrik herri honi.



San Inazio, 5
20200 BEASAIN
Telf: 943 16 21 92
Fax: 943 88 36 33

GERTU
Inmobiliaria

www.inmogertu.com



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Jon Gorrotxategi. Beasain.

Batasuna auzia



2002ko apirilaren 29ko Jon Gorrotxategi beasaindarraren atxilotetarekin hasi zen 35/2002 Batasunaren auzia. Bi urtera askatu zuten, fidantza ordainduta. Behin-behineko askatasunean dago eta astero joan behar du sinatzera. Epaiketa hasteko datarik ez baldin badago ere, uda aldera espero du Gorrotxategik epaiketa hastea.

Pertsonalki nola bizitzen da zain egote hori?

Egunero horretaz pentsatzen jartzen bazara, oso gaizki biziko zarela pentsatzen dut; nik behintzat alde horretatik, inozo izango naiz igual baina, ez diot horri begiratzen. Gertatzen dena da, egunero atzetik norbait ikusten baduzu, horrek gogoratu arazten dizula; eta astero sinatzera joaten zarenean ere konturatzen zara ez zaudela erabat aske eta nolabait mailegu bezala zaudela orain libre eta eurek erabakitakoan joan zaitezkeela. Baina horrez gainera, lanean eta militatzen hasitako konpromisoe-tan dago, hori gainditzeko dagoen indarra.

Herriko Tabernen eta Batasunaren aurkako auzian zaude auziperatuta. Auziaz zein irakurketa egiten duzue?

Gure kasua, besteengandik ez da ezberdina. Auzi guzti hauek 1998an hasi zituen Estatuak. Gure kasuak, aurretik etorri direnek eta geroztik etorriko direnek, nolabaiteko inpultso bati erantzuten diote. Estatu Españolean, historikoki izan dituen asmo inperialista horien depuraziorik ez da egon eta depurazio hori egon ez denez, momentu honetan, botere independentziarik eta horrelakorik ezin liteke aipatu, eta bere nolabaiteko Estatu izaera auzitan jartzen dituzten indar edo mugimendu edo herri guztiaren gaineko eraso erantsiari erantzuten dio. Hor sartuko genituzke auzi guztiak. Estatuaren inperioaren aurka dihoazten indar mugimendu, herritar, alderdi, sentsibilidade eta ideia politikoak daude auzitan.

Egoera politiko honen irtenbidea non ikusten duzue?

10 urte horietan eta orain ezagutzen ari garen errespisioaldi horrek ez du etenik izan eta herri honek errespisioaldi horri erantzuteko bitartekoetan dago aurrera begirako soluzioa ere. Hori laburtu daiteke, batetik, ekimen politikoa herritarrengana zabaltzeko eta herritarrek inplikatzeko saiakeran; eta beste alde batetik, erasoaldi guzti horiei erantzuteko grina hau eta erantzuteko bideetan. Momentu honetan, adibide gertukoak hor ikusten ditugu: biharko (otsailak 14) planteatuta dagoen greba hori erasoaldiari erantzun gisa, eta hauteskundeetan politikoki ezker abertzaleak gaur egun dituen helburuei, hau da, marko demokratiko batetara iristeko eta beste alderdi erregionalistek estatuarekin egin nahi duten iruzurrari bidea mozteko, zenbait eta boto gehiago bildu, orduan eta zailagoa izango dute. Errezeta hori da: borrokatzea erasoei aurre eginez, eta momentu honetan, inoiz baino argiago ditugun ibilbide politikoei bultzada emanez.

Beste batzuk, ikusten ditugu, historikoki nahia-go izan dutela Estatuarekin nolabaiteko bide komun bat egin eta bide horretan, gainontzeko alderdiei, alderdi erregionalistek gertatzen zaiena da, neurri batetan onartzen dutela Estatuak uzten dieten joku zelaia eta zentzu horretan, deslegimatuta edo ardura gabe ikusten dute beraien burua, Estatuaren gehiegikeria guzti hauek salatzen. Eta momentu honetan ikusten ditugu PNV, EA, eta nola ez Aralar, Estatuaren erasoaldiak eta gaur egun Estatuan eta Euskal Herrian bizi dugun egoera, egoera antidemokratikoa deslegimitatzeko gai ez direla. Inoiz ez dute hitz egiten demokrazia falta dela, euren legitimatu egiten dute Zuzenbidezko Estatu deritzona. Neurri batetan paktoa dago euren bizi-raupena eta euren negozioa mantentzeko, eta paktu horren ordainez, ez dute Estatuaren gehiegikeria eta izaera antidemokratiko eta inperialista hori salatzen adorerik.

Garikoitz Mujika. Olaberria.

Jarrai-Haika-Segi auzia

Zein da zuen auziaren egoera?

18/01 sumarioa, Jarrai-Haika-Segi, da gurea. Gutxi gora behera 45 gazte gaude hor auziperatuta.

Sumario hau, dagoeneko epaituta dago. Lehenik Auzitegi Nazionalak Jarrai, Haika eta Segi erakunde ilizitoak direla, baina ez terroristak, esan zuen. Beraz, gehieneko zigorrak 4 urtekoak izan ziren. Ondoren Auzitegi Gorenak esan zuen ilizitoak zirela, baina izaera terroristakoak eta 6 urteko zigorrak jarri zituen. Momentu honetan Auzitegi Konstituzionalaren esku dago epaia. Baina bagaude epaiketa garaian atxilotu gabe geunden batzuk eta epaiketa berriaren zain gaudenak, horretarako tramite guztiak eginda daude eta data jartzea bakkrik falta da.

Tarte horretan kartzelan ere egon zinen.

Jazarpen politikoa zela eta nire herritik eta inguruetik ihes egin beharra izan nuen eta Ziburun bizi nintzen. 2005eko otsailean atxilotu ninduten bertan. Euroagindua onartu bitartean, askatu ere egin ninduten, baina urte bereko abuztuan berriro atxilotu eta Espainiaratu ninduten. 9 hilabete espetxean egin ondoren, 2006ko apirilean fidantzapean askatu ninduten.

Pertsonalki nola bizitzen da zain egote egoera hori?

Ez da egoera eroso. Saiatzen naiz horretan ez pentsatzen. Horrek ez du esan nahi egoera inkosziente batean bizi behar denik ezta ere estuasun egoera batean ere. Nik uste dut batez ere kontzientzia lasai edukitzeak ematen duen patxadarekin. Badakigu zer egin dugun: herri honen eskubideen alde antolatzea eta borrokatzea, Euskal Herriaren etorkizuna independentzia dela sinesten dugulako. Noski, ez da gustokoa etsaiaren hortzen artean harrapatuta bizitzea, baina beldurrik ere ez zaio izan behar egoera horri. Bizitzen eta borrokatzen jarraitu behar da.

18/98 auziko epaia zuena baina gogorragoa izan zen eta orain beste hainbat epaiketa ere badatoz.

Orain dela urtebete inguru, herri honen gatazkari, mahai baten inguruan, irtenbidea emateko saiakera egon zen, herritarren eskubideak errespetatuko dituen marko demokratiko batera iristeko. Negoziazio mahai horretatik altxatu ziren, ez daudelako



gutxiengo demokratiko horiek sinatzeko prest eta orain ezker abertzaleari ahal den min gehien emateko ahaleginean ari dira. Iraganeko errezetak dira berriro, mina ematen dute, sufrimendua eragiten dute, baina, azken finean aterabidea luzatzen besterik ez dira ari. Noski, horri erantzun beharra dago eta azken aldian aurrera eramaten ari diren ekimen politiko guztiak oso garrantzitsuak dira, konartzeko arazoa ez dutela ETarekin edo ezker abertzalearekin, baizik eta herri batekin.

Arazo guzti horren barruan, zein leku du Jarrai-Haika-Segi auziak?

Independentzia eta sozialismoaren aldeko borroka horretan gazteria sujetu garrantzitsua izan da. Jarrai, Haikak eta Segik milaka eta milaka gazte antolatu eta borrokara ateratzeko izan duen gaitasunari eta indarrari beldurra diote. Neurri errepresibo horiekin milaka eta milaka gazteren lan politikoa neutralizatu nahi dute eta hori da epai horren benetako helburua; gazteak antolaturik politika egiteko gaitasuna ahalik eta gehien murriztea.



izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA


☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL



Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Txema Auzmendi. Ordizia.

Egunkaria auzia



2003ko otsailaren 20an atxilotu zuen Guardia Zibila Txema Auzmendi, Donostian, Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluko idazkaria izateagatik. Hiru aste egin zituen Soto del Realgo kartzelan, eta gaur egun epailetan zain dago. Bi sumariotan, 40 urteko kartzela zigorra eta 32.891.150 euroko isuna eskatzen dute ordiziarrarentzat.

Epaiketa noiz izango duzuen?

Auzitegi Nazional horretan epaile bakarra dago auzi ekonomiko ez arduratzen dena, eta nonbait lanik gabe dago, eta azkar etor daiteke dena.

Okerrenerako presta zaude orduan.

Ez naiz masokista, baina ez naiz fidatzen. Eta hori sentitzeak barne bakea ematen dit. Txarrenerako prestatzeak asko laguntzen dit niri psikologikoki. Nik horrela nahiago dut, hobeto sentitzen naiz barrutik.

ETari laguntzea eta kide izatea leporatzen dizute.

Nik ordurako 12-13 urte neramatzan saltsa horretan. Ni banekin non nengoen. Tartean egon zitekeen pertsonaren bat, nik jakin edo ez, ETarekin lo-

tura zuena edo ETan egona. Hori nik ezin dut jakin, eta ez dut jakin beharrik ere. Esatea Juan Mari Torrealda ETakoa zela, sekula ez denean alde batera edo bestera lerrotu. Oraintxe jakin dugu Guardia Zibila 2002ko udazkenean entregatu ziola txosten bat epaileari. Frogak beldurgarriak dira. Azkenean da ikustea, euskara eta euskalgintza administrazioak bultzatutako esparrua dela, bai Espainiako Gobernuak zein Jaurilaritzak. Hor bide onean ari zara, baina ari baldin bazara administrazioetik kanpo, ETak euskara eta euskalgintza estrategiko jotzen dituen, beraiek esaten dute lurraldetasunaren eta autodeterminazioaren pareko dela. Orduan, administrazioari lotuta ez dagoenean ETaren estrategian dago. Eta hori ez gure kasuan bakarrik, euskalgintza osoan. Epaileak hori bereganatu badu, esango du ETaren estrategia pean ari garela. Nola egin daiteke egoera horri aurre, herritarrek ez badaude zure aldamenean, edo gobernua? Horregatik esaten dut nik desobedientzia zibilaren bideari heletzea izan daitekeela aukera bat. Edo beste manifestazio handi bat egin? Herri honetan manifestazio asko eta asko egin dira, eta bere eragina dute, baina hori bakarrik? Nik uste dut salto bat egin behar dela hor, etikoki.

Eta kaleko jendeak zer esaten dizu?

Inpotentzia sumatzen dut, nola bideratu hau. Ni ez naiz fidatzen alderdiez, askotan alderdiek haien interesei begiratzen diete, eta uste dut mugimenduren bat sortzekotan beste nonbaitetik sortu behar dutela. Badago jendea desobedientzia zibilaren inguruan lanean aritu dena, baina haiek ez dute dirurik, ez dute botererik, orduan nola egin? ETak badaki armaz ezin diola estatuari irabazi, orduan beste maila batean egin behar dela lana, orduan estatuak berak kontrolatzen ez duen beste estilo bateko lana egin behar da: desobedientzia, plantoak, epailetara ez joan...

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

biok
zerbitzuak

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00

Faxa 943 80 51 27

www.biokzerbitzuak.com

Ordizia Goierri, 12

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA 943 887 221 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Urko Irastortza. Lazkao.

Udalbiltza auzia

2002an Udalbiltzako hainbat kide atxilotu zituzte-nean, Lazkaoko zinegotzia zen Urko Irastortza, Euskal Herritarroketik. Udalbiltzako kirol arduraduna ere ba zen.

Zertan da Udalbiltza sumarioa?

Sumarioa itxita dago, fiskalak, akusazio partikularrak eta defentsak eskaerak egin dituzte eta epaiketari hasi zain dago. Fiskalak 10 urteko kartzela zigorra eskatzen du gehienontzat talde armatuko kide izateagatik.

Tartean atxilotetak ere izan ziren, baina zu ez zintuzten atxilotu.

Bai, San Prudentzio inguruan atxilotu zituzten Udalbiltzako hainbat kide. Eta sumarioaren instrukzio-aldia bukatzen ari zenean Garzon epaileak beste 12 lagun deitu gintuzten deklaratzera eta horietatik 6 talde armatuko kide izatea akusatuak izan ginen. Denera 22 lagun gaude auziperatuta.

Pertsonalki nola bizi da zain egote hori?

Gogorra da, saiatzeko gara ahal den neurrian burutik kentzen, mendi buelta batzuk eman, kirola egin... Abokatuarekin hitz egin behar dugunean, beste sumarioen albisteak kaleratzen direnean... buruari bueltak ematen dizkiot. Epaiketari garaian Madrila bueltara ibiltzea, epaiaren zain egotea... gogorra izango da.

Zein da Udalbiltza kasuaren berezitasuna?

Sumario guztiek dute bakoitzak bere berezitasuna. Eta Udalbiltzak ba ditu batzuk benetan garrantzitsuak direnak, adibidez, hor gauden gehienak inputatu gintuzten garaian hautetsiak ginela, herritarrek aukeratuak ginela, horrek ematen duen legitimitatearekin. Euskaldunak bildu ginen beste 2.000tik gora hautetsiekin batera herritarren botoek emandako bermea genuen. Lehenengo erakunde nazionalan, EAJ eta EAKo hautetsiekin batera sortutakoan, zehaztutako ildoak martxan jartzea besterik ez genuen egin.



Garrantzitsua da Udalbiltza auzia, azken finean, Euskal Herriko lehen insituzio nazionala zigortzen bada, hortik aurrera sortu litezkeen guztiekin ere berdin egin dezaketelako.

Oso gogorra egiten da pentsatzea, Ikaspilotari dirulaguntzak emateagatik edo euskal selekzioaren aldeko ekimen batzuk martxan jartzeagatik, edozein pertsonak 10 urte kartzelan pasatu ditzakeela. Horrekin ez dut esan nahi beste sumarioetan inputatuta daudenek motibo gehiago edo gutxiago dauzkatenik. Sumario guzti hauek lan politikoa dute atzetik eta lan politikoa epaitzen ari dira eta jendea kartzelara eramaten, lan horregatik.

Azken batean, gerra estrategi horren barruan, Euskal Herriaren eta Euskal Herria eratzeak behar horren kontra Udalbiltzakoa, pauso bat gehiago da, bere berezitasunekin baina ez besteak baino garrantzitsuagoa edo garrantzi gutxiagokoa. Eta dirudienez, ez da bukatzen. Ez dakit hurrengo pausoa zein izango den, baldin bada ere.


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaola 8
Tel 943 721 078
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O
-



Bittor Gorria apaiza, Jerusalem:

“Nire buruan, bihotzean eta jarreretan freskotasun gehiago nahi dut”

B easaingo Andra Mari Elizako apaiza da Bittor Gorria. Urtebeteko atsedena hartu nahirik, Jerusalem joan zen irailan. Teknologia berriak aprobetxatuz, e-mailez, ondorengo elkarrizketa hau egin dugu, Jerusalemgo eta Bittor Gorriaren albiste freskoak ekarri.


**Zer dela eta hartu zenuen urtebeterako Jerusalem-
ra joateko erabakia?**

Alde batetik nire jarrera berri beharra sentitzen nuelako. 10 urte Beasainen igaro ondoren eta bizitzako 66 urte beteta, atsedeen pixka bat ere behar nuen.

Nire buruan, bihotzean eta jarreretan freskotasun gehiago nahi dut, Apokalipsis liburuak hain dotore esaten duen bezala: “Hasierako maitasun hartara itzuli”.

Urte sabatikoa egiteko, leku aproposa al da Jerusalem?

Lagun batek esan zidan ea zergaitik ez nintzen Alemaniara joaten zer edo zer ikastera. Baina apenas zailtzarik izan nuen, eta konbenzituta nago aukera-



B azkoa Jesukristoren Biztuera denez, egun hori, orain dela 2000 urteko Berri On haren antzera bizitzen saiatuko gara.

rik hoberena egin nuela.

Kristaudentzat zer esan nahi du Jerusalemek?

Jerusalem Testamendu Zaharreko helmuga zen. Kristautasunaren abiapuntua. Hemen igaro zituen Jesusen bere azken egunak. Hemen nabaritu zuten bere ikasleek bizirik irauten duela eta bere Izpirituaren indar berritzailea berekin zutela. Jerusalem, harresiak, elizak, mundu guztiko erromesak... leku mitikoa da...

Gabonak Jerusalem osatu dituzu eta Aste Santuan ere bertan izango zara. Nola bizi dira? Zer sentimendu izan dituzu?

Aste Santua beste esperientzi bat, niretzat berria eta ezezaguna, izango da. Bere helmuga Bazkoa, Jesukristoren Biztuera denez, egun hori, orain dela 2000 urteko Berri On haren antzera bizitzen saiatuko gara. Bizitako sentitzen: ikusten duzu mundua eta izaki ba-


koitza bestelako mundu baten irrika batean gaudela; edota honek otoitz iraunkorrera bultzatzen.

Kristautasuna bizitzeko moduan aldaketarik ba al dago?

Jerusalem erlijio giroaz beterik egon arren, ez dago kristau bezala. 800.000 biztanleko hiri honetan 12.000 inguru kristau beste-rik ez gara: gehienak arabiarak, kanpokoak eta judutar bakar batzuk. Hori bai, ni harrituta geratzen naiz, bai judutarrek eta bai musulmanek beren sinemen zer kemenarekin adierazten duten ikusita.

Egoera politiko zaila dagoen lekura joan zara. Zer aurkitu duzu? Uste baino hobeto, okerrago?

Poliziaz, kontrolez eta mugaz inguratuta gaude. Hala ere, egoera honek gure eguneroko bizitza apenas ukitzen duen. Horren arriskua, “alegremente”, beste munduan bizitzekoa da. Jerusalemdik 10 kilometrorra (Belen, Betania...) bizi diren Palestinarrek zailtasun izugarriak dituzte Jerusalem ikasteko, lan egiteko edo beren salmentetara etortzeko. Arazo honek eraginda gero eta palestinar gehiago, itota bezala sentitzen dira eta atzerrira abiatzen dira. Aste honetan, ‘Holokausto Museo’-a ikusten izan naiz. Gaztetxo eta soldaduz inguratutik ibili nintzen. Hauen artean edo bere guraso edo aitona-amonen artean gehienak kanpotik etorritako judutarrek dira. Nire galdera zen: hauengan zer sentimendu sortaraziko dituzte naziak judutarrei egingakoak? “Guri egin ziguten?



Urtarrilean, Jerusalemgo eliza desberdinetan, hizkuntza desberdinetan, kristau talde bat bildu gara, Eliza bateraturatuaren alde otoitz bateratua egiteko. Jende xumea batasunaren irrikan dago. Nik uste zailtasun handiena goiko mailatan daukagula.

Ez dut zer ikusirik honekin?..." Hau orri asko idazteko gaia izango litzateke. Ni behintzat galderez beteta etorri nintzen herri honen nortasunaren ezaugarriez.

Bestalde, palestinaren arteko Hamas alderdia. Aste honetako atentatu bat delata elkarri zorionak ematen zizkieten. Hiru hildako izan dira: bat israeldarra eta bi palestinar. Zer dela eta zorionak? Pentsatzekoa zen bezala, hurrengo egunetan, israeldarrek 15 Hamastar hil dituzte. Nora iristeko asmoa dute? Eta munduko gobernuak, beste aldera begira... Lehen, Nazien garaian, bezala.

Zer ekarriko zenuke Jerusalemetik Goierrira? Eta Goierritik zer eramango zenuke hara?

Aurreko erantzuna luzea izan denez, orain labur: Jerusalemetik Goierrira eta Goierritik Jerusalemara: gizakiok bizitzeko eta ongi

bizitzeko egiten ditugun ahaleginak; hona iristeko beharko dugun elkar ulertzea eta barkatuak izatea.

Aurretik beste herrialde batzuetan ere ibilia zara. Zer ikusi eta ikasi duzu? Herrialde bakoitzean bizitako esperientzia, labur-labur, kontatuko al zenuke?

Alemanian etorkinekin aritu nintzen. Ikasi nuena: gizakia izatea, nongoa baino garrantzitsuagoa dela.

Ekuadorren, batez ere, nekazarien artean bizi nintzen. Ikasi nuena: txiroen jakinduria; sufrimenduak, egoera txarra izan arren, pertsonari helduagoa izaten lagun diezaiokeela. Munduan ditugun desberdintasunak direla arazorik eta zuzentasugabeziarik gordina. Nahiz eta guk ere, askotan... beste aldera begiratu.

Gipuzkoan: gure txoko honek ez duela parerik eta

ondo bizitzeko, eskutik 31 daukagula... jokatu egin behar...!

Kristautasunak ez dirudi momenturik onenean dagoenik. Apaizak gero eta gutxiago dira, gazteak Elizara ez dira gehiegi hurbiltzen... Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ez dut uste etorkizuna iragana bezalakoa izango denik. Ez eta nahi ere! Benetan diozute, nik uste sinemendunoi momentu paregabea egokitu zaigula bizitzea; beste garaietan baino hobea hala okerragoa konparaketan hasi gabe. Nire irudipena da, atzoko eliztarrek elizara etortzeko zuten arrazoi berdina dutela gaur urrutiratzen diren askok: zergatik bata edo bestea egiten duten, ez jakitea edo, behintzat arrazoi sakonik ez izatea. Beraz, erlijioaren etorkizuna, gehienbat, beste esku egon bazen, gaur gure eskuetan dugu.

Goierrin ere erlijio ezberdineko gero eta jende gehiago bizi da. Erlijio ezberdinen arteko harremanak nolakoak dira une honetan?

Musulmanen dorreetatik beraien otoitz ozenak entzunda eta tenpluko harresiaren judutarrak otoitzean ikusita, gizakiengandik Jainko Bakarrarengana dihoan adiskidetasunezko olerkia iruditzen zait; era batera edo bestera, denok Jainkoaren beharra sentitzen dugula. Hala ere, Jesusek nahi izan zuen kristauen arteko batasuna oso urruti dagoela iruditzen zait. Urtarrilaren azken egunetan zehar, Jerusalemgo eliz desberdinetan, hizkuntza desberdinetan, kristau talde bat bildu gara, Eleiz bateraturatuaren alde otoitz bateratua egiteko,... jende xumea batasunaren irrikan dago. Nik uste zailtasun handiena goiko mailatan daukagula.

MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN
www.multioplicasgipuzkoa.com

**bigarren betaurreko
parea DOHAIN**

Bonardi
betaurrekoak
doan
kristalak barne

konbi
eskaintzak

AZKEN EGUNAK

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRENTERIA	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
--	---	--	---	--	--	--	---

Urtzi eta Maite Murgia

Eskiatzaile txirrindulariak



Txiki-txikitatik, elurrarekin jolasean hazi dira Lazkaoko Murgiatarrak. Abendutik apirilera, iraupen eskia egiten dute Urtzik eta Maitek. Eski denboraldia amaitu bezain laster, bizikleta hartzen dute.



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58
 Faxa: 943 02 79 39
 San Inazio, 5 BEASAIN

Jauregi
TOLDOAK

INSTALATZAILE OFIZIALA

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

18 urte egingo ditu laster Urtzik; 16 urte ditu Maitek. Familia kirolaria da eta seme-alabei txiki-txikitatik barneratu diete kirol zaletasuna. Anaia zaharrenak, neguko triatloiak egiten ditu; bi gazteenek, Urtzik eta Maitek, iraupen eskia eta txirrindularitza. “Txiki-txikitatik eskiatu izan dugu. Gurasoek eramaten gintuzten, kotxe-sillan ere bai”.

Jacako Mayencos taldeko kideak dira. 8 bat urterekin, lehiaketetan parte hartzen hasi ziren. “Ordura arte, taldearekin ikasten ari izen ginen. Ikastaroak ematen zizkiguten. Taldean jarraitzen dugu, orain ez dugu ikastarorik egiten baina lasterketetara beraiekin joaten gara”, zehaztu dute lazkaotarrek. Beti iraupen eskian ibili izan dira. “Noizean behin joaten gara alpinoa egitera, zerbait ezberdina egiteagatik, denbora pasa”.

Neguko asteburuetan, Jaca aldera joaten dira, elurraren bila. Candanchun eta Sonporten eskiatzen dute. “Eski denboraldia, berez abendu hasieran hasten da baina hasterako, abendu bukaera izaten da, elurrik ez da egoten-eta. Aurtengo denboraldian, adibidez, lehenengo lasterketa, abenduaren 22an egin genuen. Apirileko lehenengo astean, Espainiako txapelketak dauzkagu eta hurrengo asteburuan azkeneko proba bat izango dugu. Hor bukatuko da denboraldia”.

Proba ezberdinak

Kadete mailan dabilta Murgiatarrak. Urtzi, kadeetetako hirugarren eta azkeneko urtean, eta Maitek aurtun du lehenengo urtea kadeteetan. Lasterketa mota ezberdinak daude, eta adinaren arabera ere aldatzen dira luzeerak. Batez ere 10 kilometrokoak egiten dituzte. “Adinaren arabera, lasterketaren luzera aldatzen da. 14 urtera arte, 2,5 kilometro; 16 urtera arte 5 kilometro eta



“Iraupen eskia eta txirrindularitza bateragarriak dira”

Eskiatzaileak izateaz gain, txirrindulariak ere badira lazkaotar anai-arrebak. Eski denboraldia amaitu orduko, txirrindularitza denboraldia izaten dute zain. Sasoiari hasten dute denboraldia, baina aldi berean, baita nekatuta ere.

Urtzi, Caja Rural taldean dabil, juvenil mailan. “Aurtun zaharrena izango naiz eta ea ondo moldatzen naizen”, dio Urtzik. Maite, Tolosako nesken taldeko txirrindularia da, kadeteen mailakoa, gure aldizkarian ezagunak diren Ana eta Irene Usabiaga ordiziarrekin batera. “Ni Ordiziako Irene Usabiagarekin batera arituko naiz. Neskekin bakarrik Espainiako kopako karreretan parte hartzen dugu eta karrerarik ez dagoenean, mutilekin aritzen gara. Normalean asteburuerako karreraren bat izaten dugu”, zehaztu du Maitek.

Txirrindularitzan ere gustura dabilta Urtzi eta Maite. Besteak beste, bi kirolak bateragarriak diren jakin nahi izan dugu.

Eskia eta txirrindularitza bateragarriak al dira?

Maite: Eskiatzen fondoa hartzen da eta bizikletarako ondo etortzen da. Denboraldi hasi aurretik, nahiz eta eskiatzen aritu, pixkanaka bizikletan ibiltzen ere hasi beharko gara, kilometroak sartzeko.

Urtzi: Eskiatzea oso ondo etortzen da gero bizikletan ibiltzeko. Eskiatzen ari zarenean oso pultsazio altuetan aritzen zara, eta bizikletan hori lortzea zaila da. Orduan, txirrinduan hasten zarenean, erraztasun gehiago daukazu.

Urte guztia, hartuta izaten duzue beraz.

Urtzi eta Maite: Abuztuan hartzen dugu jai.


Eski denboraldia nekatuta bukatzen duzuela diozue. Dena den, masajista etxean daukazue...

Urtzi: Txirrindularitzako denboraldia hasten denean, hankak kargatu samar izaten ditugu eta aitak ia astero ematen dizkigu masajeak.

Bakarren bat aukeratzeko beharra izanez gero, eskia ala txirrindularitza aukeratzeko zenukete?

Maite: Entrenatzeko-eta hobeto daukagu txirrindularitza. Baina bietan gustura ibiltzen gara.

Urtzi: Oraindik badaukagu aukeratzeko denbora.



Urtzi Murgia

Zaletasun bat:

Musika.

Eskia eta txirrindularitzaz gain, beste kirol bat:

Saskibaloia.

Eskolan gehiena gustatzen zaizun ikasgaia:

Filosofia.

Eta gutxiena:

Marrazketa.

Idolo bat:

Egoi Martinez txirrindularia.

Musika talde bat:

Denetik. Bateria jotzen dut.

Liburu bat:

‘Connemara gure bihotzetan’

Janari bat:

Pizza.

‘Handia’ egindakoan zer izan nahi duzu?

Kirolaria izan eta karrera profesionala bukatutakoan, kirolaren munduarekin lotuta segitzea.

Zure ametsa zein da?

Kirolean ahal den aurreren joatea.

16tik aurrera, mutilek normalean 10-15 kilometro egin dituzte; neskek, 5 edo 10. Distantzia luzeagokoak ere badaude. 20, 30... handiena, 50 kilometrokoak izaten dira”.

Sprinteko probak ere izaten dituzte, kilometroko zirkuituari itzuliak emanez.

Lasterketarik ez dute falta izaten. “Neguan, normalean asteburu guztietan izaten da karreraren bat baina denetan ez dugu parte hartzen, atsedena hartzeko”.

Denboraldi ona

Denboraldia aurrera doa eta emaitza onak ari dira lortzen, batez ere Urtzi. “Aurten ondo, beti aurrean nabil. Espainiako selekzioarekin kanpora ateratzen garenean, gauzak ezberdinak dira, maila handiagoa dago eta”, dio Urtzik. Emaitza onak ari da lortzen. “Denboraldi hasierako lasterketan bigarren egin nuen; Sonporteko karreran, iraba-

zi egin nuen; Espainiako taldekako sprint lasterketa irabazi egin genuen. Binaka izaten dira eta kilometro bateko zirkuituari, txandaka, itzuliak ematea da”. Baqueirako karreran, bigarren egin zuen. “Frantsesak ere baziren eta bigarren egin nuen”, zehaztu du.

Maiterentzat “aurten zailxeago daukat, mailaz igo naiz eta gazteena bainaz”, dio. “Orain selekzioarekin ari dira nire mailako neska batzuk eta aurten asko hobetu dute. oraingoz behintzat ez dut ezer berezirik egin, 5. postuaren bueltan nabil; oraindik ez

dut podiumik zapaldu”, gaineratu du lazkaotarrak.

Entrenamenduak

Gurean elurrik izaten ez denez, elurraren bila joan egin behar izaten dute eskiatzaileek. Beraz, astean zehar beste entrenamendu mota bat egiten dute. “Astean zehar, gimnasioan, korrika... roleskiekin ere aritzen gara. Eski motz batzuk dira, gurpilekin eta karreteran ibiltzeko”.

Urtziri, Espainiako selekzioarekin bideratzen dizkiote entrenamenduak. Maiteri, Lazkaoko Kemen zentroko Etor Mendiak.

Astean zehar Lazkaon bertan egiten dituzten entrenamenduak ere garrantzitsuak dira. “Gimnasioan ordu asko sartzen ditugu, muskularki asko matxakatzeko baita, besoetan indar handia behar da”, dio Urtzik. “Iraupen eskian teknikak asko balio du, baina indarra eta fondoa ere beharrezkoak dira”, gaineratu du Maitek.

Elurretako entrenamenduak zertan oinarritzen dituzten galdetu diegu: “elurretara joaten garenean, ahal dugun guztia eskiatzen dugu. Selekzioarekin joaten garenean, bideoz grabatu eta hotelean, telebistan ikusten dugu, teknika hobetzeko”, argitu du Urtzik. Anaiak erakusten dizkio teknikak Maitek.

Europar

Espainiako selekzioan aukeratuetariko bat da Urtzi eta selekzioari esker, Europa aldeko lasterketetan par-

“Txiki-txikitatik eskiatu izan dugu. Gurasoek eramaten gintuzten, kotxe-sillan ere bai”

Maite Murgia

Zaletasun bat:

Musika.

Eskia eta txirrindularitzaz gain, beste kirol bat:

Ez dakit, eskiarekin eta txirrindularitzarekin gelditzen naiz.

Eskolan gehiena gustatzen zaizun ikasgaia:

Euskara.

Eta gutxiena:

Gizarte.

Idolo bat:

Ez daukat idolorik.

Musika talde bat:

Denetik entzuten dut. Pianoa jotzen dut.

Liburu bat:

Ez dut irakurtzen, justu, behartutakoa.

Janari bat:


Kaneloiak.

‘Handia’ egindakoan zer izan nahi duzu?

Oraindik ideiarik ere ez daukat.

Zuen ametsa zein da?

Bizikletan ez bada eskiatzen eta eskiatzen ez bada bizikletan, beti hor jarraitzea.



te hartzeko aukera izaten du. “Jendea askoz ere profesionalagoa da, ia urte osoan edukitzen dute elurra eta askoz ere gehiago eskiatzen dute. Gu, abenduan hasten gara eskiatzen”.

Dena den, Espainiako selekzioan egotearekin, elurretan entrenatu ere, gehiago entrenatzen du, hilean behin astebeterako, Alpeetara joaten baitira irailan hasita. “Kanpora ateratzen ga-

renean, liburuak eramaten ditugu”, aitortu du lazkaotarrak.

Urtzirentzat, beraz, selekzioan sartzea garrantzitsua da. “Selekzioan sartuz gero, asko eskiatzen duzu, elurretan asko ibiltzen zara eta hemen egonez gero aukera gutxi dago”.

Maite ere iritzi berekoa da eta saiatuko da aurten Espainiako selekzioan tartetxoren bat lortzen. “Orain

arte, beste mailetan, ondo ibili izan naiz. Aurreko denboraldia txar samarra izan nuen eta selekzioan sartzeko aukera galdu nuen eta besteek asko hobetu dute eta alde horretatik gaizki. Baina joango naiz pixkanaka hobetzen”.

2014

Eskiatzaile bezala dituzten ametsi eta helburuei buruz galdetuta, ahalik eta urru-

tien iristea dute helburua biek. Urtzik, gehiago zehaztu du: “orain ahal den gehiena jarraitu eta aukera baldin badago, Munduko Kopako probaren batean eta Olinpiadaren batean parte hartzea”.

Kalkuluak ondo eginak ditu lazkaotarrak. “Hurrengo Olinpiadak, 2010ean izango dira, hori zaila izango da baina ea 2014koa harapatzen dudan”.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

Ordizia

Udaleku irekietan ariko diren begiraleak trebatzen

‘Euskararen sustapena udaleku irekietan’ ikastaroa antolatu du Ordiziako Udaleku Euskara Zerbitzuak, bigarren urtez jarraian, Euskara Biziberritzeko Planaren (EBPN) barruan. Haurrekin nahiz gazteekin aisialdian aritzen diren hezitzaileei begira antolatu dute ikastaroa Euskara Zerbitzukoek, horien arabera, “haur eta gazteen hizkuntzaren erabileran berebiziko garrantzia duela-ko haiekin aritzen diren begirale edo hezitzaileen hizkuntza-prestakuntzak eta jarrerak”.

‘Euskararen sustapena udaleku irekietan’ ikastaroak hamar ordu iraungo ditu, eta hiru arratsaldetan emango da: hain justu ere, apirilaren 10, 17 eta 24an, 17:00etatik 20:00etara. Urtxintxa Eskolakoek emango dute eta honako edukiak landuko dituzte, besteak beste: sozio-linguistikako oinarriko kontzeptuak, begiraleen jarrerak euskara sustatzeko, euskal jolasak eta adibide praktikak: jolas dinamizazioak, barnetegiak, udalekuak... Adin guztietako haur eta gazteekin dute esperientzia Urtxintxa Eskolan, euskara eta aisia uztartuz, 0tik hasi eta 18 urte artekoekin aritzen baitira. Begirale, irakasle eta gurasoeekin ere egiten dute lan.

Ikastaroan landuko diren eduki guztiak biltzen dituen txostenaz gain, Urtxintxa Eskolak argitaratutako Euskal Jolasak liburuxka eta Gazte Hizkeraren Jolasak liburuxka banatuko zaie ikastarora doazenei. Ikastaroan 8 lagunek eman beharko dute izena gutxienez, eta gehieneko muga 20koa izango da.

Udalaren eta Hitzaroren arteko hitzarmenaren haritik, Hitzaroko lan-poltsako begiraleak aritzen dira EBPNko aisialdi ekintzak dinamizatzen, eta, besteak beste, Txirristi Mirristi udaleku irekiak ere dinamizatzen dituzte. Apirileko ikastaroan parte hartzen dutenek lehenetsuna izango dute gerora Txirristi Mirristin aritzeko.

Martxoaren 18an amaitzen da ikastaroan izena emateko epea. Udaleku Herritarren Arretarako Udal Bulegoan egin behar da izen-ematea, 30 euro ordainduta (Hitzaroko lan-poltsakoek, 20 euro).



Gabiria

X. Rallysprinta

Martxoaren 2an, arratsaldeko 3etan, Gabiriako X. rallysprinta jokatu da. Euskal Herriko Rallysprint txapelketarako puntuagarria da Gabiriako saioa. Korta jatetxetik Legazpiko Motxorro bideguratzearainoko 7,7 kilometroko ibilbidea hiru aldiz egingo dute partaideek.

10:00etatik 12:00etara: Ziurtatze teknikoak.

13:00etan: Onartutakoen zerrenden aurkezpena.

14:30ean: Autoen aurkezpena.

15:00etan: Lehen autoaren irteera.

18:15ean: Lehen autoa iritsiko da.


19:00etan: Emaizten argitaratzea.

19:30ean: Sari banaketa.

Beasain

XVIII. Arrano mus lehiaketa

Martxoaren 8an, arratsaldeko 4,30etan, jokatu da XVIII. Arrano mus lehiaketa. Izena 15:30ean eman behar da Arrano tabernan eta bikote bakoitzak 30 euro ordainduko ditu parte hartzeko. Jokoa 4 erregetara izango da, 30 tantuko 3 usteletara jokatu da eta ez da kei-nurik onartuko. Irabazleek 1.200 euro eta txapelak izango dituzte zain. Bigarren sailkatzen direnek 600 euro eta ondorengo bikoteentzat ere sariak izango dira 8. sailkatura arte.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:

Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word...

INGELERA:

Haurrak, gazteak, helduak

IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza

Joan Iturralde, 5, Beasain
943 160 120
www.ikaskide.net

LANA

eskaerak

Esperientziadun zerbitzari euskalduna behar da. Eguneroko kontratuarekin. 943880044.
Alzuaran dendak neska bat behar du egun erdirako. Bertara eraman kurrikuluma.
Harategirako langilea behar da Goierri. 635758375.
Enkofradore bat behar da Goierriko enpresa baterako. 649813670.
Zerbitzari bat behar da sargadotegi batean lan egiteko. 607365743.
Emakumezko bat behar da 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 629184035.
Araman, emakume bat behar da orduka etxeko lanak egiteko. 650728717.

eskaintzak

34 urteko neskak, asteburuetan, edozein lan egingo luke. 695706634.
Emakumea eskaintzen da ostalaritzan, garbiketan... lan egiteko. Esperientziaduna. 618355445.
Atariak edo etxeak garbitzen lan egingo nuke. 9:00etatik 13:00etara, astelehenetan, asteazkenetan eta ostegunetan. 628217527-
Etxeko lanak egiten edo umeak eta adinekoak zaintzen lan egingo nuke Goierri eskualdean. 605702410.
Neska, erreferentzia onekin, lan bila dabil. Etxean bertan bizita ere bai. Orduka. 690152202.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,65 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Lan kontuak direla eta, Goierrian, 4 hilabeterako pisu bat alokatu nahi dut. 607770273. Inaxio.
Bikotea, alokatzeko pisu bila dabil Beasainen. 687795557.

errentan eman

Ataunen pisua alokatzen da. 650565801.
Jakan, martxoaren 14tik 18ra edo 24tik 30era, apartamentua alokatzen da. 676615361.

salgai

Arama. Etxe bifamiliarra salgai. 240m². Ikusgarria. Informazio gehiago lortzeko sartu gure orrialdean: www.lamylazkao.com/inmo.
Ataun. Eraikuntza berria: 2 logelako pisua, garaiearekin eta trastelekuarekin. 210.400 euro + Beza. LAZKAO INMOBILIARIA.
Beasain. Igartzako etxebizitza gunean, 112 m²ko etxebizitza salgai: 4 logela, 2 bainu eta 14 m²ko terraza. Bi autorentzako garaiea. 635746967.
Beasain. 4 logelako etxebizitzak salgai, oztopo arkitektonikorik gabe. Erdigunean. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.
Beasain. Duplex ederra salgai. Bista paregabeak. Eraikuntza berria. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.
Beasain. 80 m²ko etxebizitza salgai. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.
Beasain. Eraikuntza berriko 2 logelako pisua salgai, erdigunean. Garaiearekin. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Beasain. Hirigunean, eraberri-tutako 2 logelako atikoa salgai. 180.000 euro. LAZKAO INMOBILIARIA.

Etxarri Aranatzen etxea salgai, herri barruan. 50 m²ko 3 solairu. Zaharberritzen hasita. Harri eta zurezkoa. 678016296.

Idiazabal. Eraikuntza berria: 3 logelako etxebizitza. Sukalde hornitua. 283.000 euro + beza. LAZKAO INMOBILIARIA.

Irun. Etxebizitza bezala egokitutako baxua salgai. 2 logela, sukalde amerikarra, komuna, berogailua eta terraza txiki bat. Altzariz hornitua eta eraberri-tutua. 93 m². 195.000 euro. 636858512.

Lazkao. Elozegi kalean, orain dela 3 urte egindako etxebizitzak. 3 logela eta garaiea. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkaon etxebizitza salgai, 3 logela, 80m², eguzkitsua eta bista onak. Aukera ona. 660024835.

Lazkao. Hirigoien kalean, 2 logelako etxebizitza. Igogailua eta trastelekuarekin. 234.000 euro. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Hirigoien kalean, 2 logelako etxebizitza salgai. Igogailuarekin. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. San Jose auzoan, 60 eta 75 m²ko etxebizitzak. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Eraikuntza berriak: 1, 2, 3 eta 4 logelakoak. Orobionen eta San Prudentzio auzoan. LAZKAO INMOBILIARIA.

BESTELAKOAK

salgai

Umeen pinuzko logela salgai. Egoera oso onean, merke. 943180390 / 699120273
Haritzezko 200 litroko 4 kupel salgai. 20:00etatik 22:00etara deitu. 943889051.
Logela txuria salgai. Osoa. Egoera onean. Berria. Kapri-txosoa. 665717162.
Akazi piketeak salgai. 943180230 - 699761578.
Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615755762.

kontsultak

Tarot kontsultak. 943766214.

ANIMALIAK

opari

Hilabeteko artzain txakurak opari. Oso politak. 943187307.

GARAJEAK

salgai

Lazkao erdigunean garaje itxia salgai. 658745378 - 658745377.

PABILIOIAK

errentan eman

Lazkao. Pabilioia alokairuan, lbabe industriagunean. 336 m² + 168 m². LAZKAO INMOBILIARIA.



Ordiziako Sindikatuaren sortzaileak 1920an

1920. urteko argazki honetan Ordiziako nekazarien Sindikatuaren (gaur egun Goierriko Kanpo Kooperatiba) sortzaileak ageri dira.

RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

ainaratzaberria

HANKARA

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

ZUGAZTIBI

AHOLKULARITZA

txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.

AUZOKI

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA GOIERRIKO KANPUSA




Martxoak, 6
Osteguna
Arratsaldeko
5.30etan

**Ate
irekien
jardunaldia**

2. Batxilergo
ikasleentzat,
gurasoentzat,
etabar...

Plaza erreserbatzeko, deitu aurretik 943 88 00 62 telf-ra (Lierni)



PRIUS



Toyota Prius 22.500 eurotik

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926

BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es